

Euskadiko gazteek politikarekiko duten interes eza areagotu egin da azken hamar urteotan

Euskadiko gazteen erdiek ideologikoki ezkertiarizat eta, identitate aldetik, nagusiki euskal herritarizat jotzen dituzte beren buruak. Era berean, % 34 Euskal Herriaren independentziaren alde daude.



Hamar gaztetatik zazpik diote ez daudela politikan oso interesatuta edo ez daudela batere interesatuta. Interes eza hori areagotuz joan da. *Gazteen argazkiak 10* azterlanean jasota dauden datu hauek erakusten duten gazte eredia politikatik gero eta urrunago dago.


Gazteen artean, neskek eta gazteenak dira hein handiagoan politikarekiko interesik adierazten ez dutenak.

Politikarekiko interesa, sexuaren eta adin-taldeen arabera. Portzentajeak. EAE. 1996-2006								
		Sexua			Adin-taldeak			
		Guztira	Gizonak	Emakumeak	15-17	18-21	22-25	26-29
1996	Oso interesatuta	8	10	6	5	9	9	8
	Nahiko interesatuta	29	29	29	22	28	31	32
	Ez oso interesatuta	24	25	23	18	24	24	26
	Batere interesatuta	39	35	42	54	39	36	33
	Ed/Ee	0	0	0	1	0	0	0
	Guztira %	100	100	100	100	100	100	100
2006	Oso interesatuta	7	9	5	2	8	9	8
	Nahiko interesatuta	21	22	20	16	21	22	23
	Ez oso interesatuta	31	32	30	27	30	31	35
	Batere interesatuta	40	36	43	52	40	37	35
	Ed/Ee	1	1	1	2	1	1	0
	Guztira %	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Gazteen argazkiak seriea. Gazteen Euskal Behatokia

Espainiako gazteekin konparatuta, Euskadiko gazteen % 7k politikan oso interesatuta daudela diote; Espainiako gazteen artean proportzio hori % 4koa da. Beste alde batetik, Euskadiko gazteen % 40k diote ez dutela inolako interesik politikarekiko; Espainiako gazteen kasuan, ehuneko hori % 32koa da. Datu horiek aditzera ematen dute politikarekiko interesari dagokionez Euskadiko gazteek dituzten jarrerak muturrekoagoak direla (Espainiako gazteen datuak INJUVERen *Informe Juventud en España 2004* txostenean agertu ziren).

Euskadiko gazteek beren buruak **ezker-eskuin ardatz ideologikoan kokatzerakoan**, gazteen erdiek diote ezkertiarrak direla, % 14k zentrokoak eta % 5ek eskuindarrak direla. Deigarria da gazteen % 31k ez dituztela beren buruak inon kokatu. Datu hauetan ez da alde handirik egon orain dela hamar urtekoekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, zentrokoak direla dioten gazteen kopuruak gora egin du, eta behera eskuindarrak direla diotenenak.



Iturria: Gazteen argazkiak seriea. Gazteen Euskal Behatokia

Espainiako gazteen kokapen ideologikoarekin konparatuz gero, Euskadiko gazteen erdiek beren buruak ezkertiarzat jotzen dituzte, Espainiako gazteen % 29k bezala. Beste alde batetik, Euskadiko nahiz Espainiako gazteen kasuan, beren buruak ezker-eskuin ardatz ideologikoan kokatzen ez dituztenen proportzioak % 30a gainditzen du. Espainiako gazteei buruzko datuak INJUVERen *Sondeo de opinión y situación de la gente joven, 2.ª encuesta 2005* txostenean ageri dira.

Euskal herritar-espainiar identitate ardatzari dagokionez, % 54k nagusiki euskal herritartzat dituzte beren buruak; % 30ek euskal herritartzat eta espainiartzat, hein berean; eta % 4k nagusiki espainiartzat. Gazteen identitatearen bilakaerari dagokionez, euskal herritar-espainiar identitate ardatzeko balio guztietan beherakada sumatu da azken hamar urteotan. Gora egin du, ostera, erantzun ez duten edo zer erantzun ez dakiten gazteen proportzioak.

Norberaren kokapena euskal herritar-espainiar identitate ardatzean. Portzentajeak. EAE. 1996-2006		
	1996	2006
Gehienbat euskal herritarra	56	54
Euskal herritarra eta espainarra, hein berean	34	30
Gehienbat espainarra	6	4
Ed/Ee	3	11
Guztira %	100	100

Iturria: Gazteen argazkiak seriea. Gazteen Euskal Behatokia

Euskal Herriaren independentzia

Gazteen % 34 Euskal Herriaren independentziaren alde daude; % 30ek diote alde edo kontra egongo liratekeela, egoeraren arabera; eta % 23 ez daude aukera horrekin ados. Era berean, % 14k ez dute erantzun edo ez dute jakin zer erantzun. Aurreko urteekin alderatuz, gazteen artean gero eta gehiago dira bai independentzia nahi dutenak bai independentzia nahi ez dutenak ere.

Independentziarekiko jarrera. Portzentajeak. EAE. 1998-1999, 2006		
	1998-1999	2006
Ados nago	31	34
Ados legoke ala ez, egoeraren arabera	39	30
Ez dago ados	18	23
Ed/Ee	12	14
Guztira %	100	100

Iturria: Gazteen argazkiak seriea. Gazteen Euskal Behatokia

Erlazionaturiko datu taulak:

1. [taula](#) (pdf, 32 Kb)
2. [taula](#) (pdf, 19 kb)
3. [taula](#) (pdf, 19 Kb)
4. [taula](#) (pdf, 19 Kb)

Erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)